**LEHENENGO ARIKETA, LEHENENGO ZATIA**
**TEST-GALDETEGIA (GAITEGI OROKORRA)**

**1. NONDIK SORTZEN DIRA ESTATUAREN BOTEREAK, ESPAINIAKO 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA?**

a. Erregearengandik.
b. Nazioko Gobernutik, zeina aukeratzen baita sufragio unibertsal bidez.
c. Gorte Nagusietatik.
d. Espainiako herritik.

**2. KONSTITUZIOAREN 25.1. ARTIKULUAN ARAUTUTA DAGOEN LEGEZKOTASUN PRINTZIPIOAK HONAKO HAU DIO:**

a. Ezin dakioke inori egite edo ez-egiteen ondorioz kondena edo zehapenik ezarri, baldin eta gertatu diren unean ez badira delitu, une horretako indarreko legediaren arabera.
b. Herritar eta botere publiko guztiak legearen mende daude.
c. Pertsona batek falta bat egiten badu, eta une horretan falta hori arau hauste bat ez bada ere, falta horrengatik zehatu ahal izango dute, baldin eta epaia ematen den unean arau haustea bada.
d. Pertsona batek arau hauste administratibo bat egiten badu, zehatu egin ahal izango dute horregatik, nahiz eta arau hauste hori ez zehagarria izan gertatu den unean.

**3. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAK ESKUMEN ESKLUSIBOA DU GAI HAUETAN:**

a. Ingurumena eta ekologia.
b. Nahitaezko desjabetzea, administrazio kontratu eta emakidak bere eskumenen barruan, eta Euskal Herriko administrazioaren erantzukizun sistema.
c. Euskal Herriko arrantza sektorearen antolamendua.
d. Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena.

**4. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL HERRIA OSATZEN DUTEN LURRALDE HISTORIKOETAKO BAKOITZAK, ERKIDEGOAREN BAITAN:**

a. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak gorde ahal izango ditu.
b. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak berrezarri ahal izango ditu, hala badagokio.
c. Bere antolakuntza eta bere autogobernu-erakunde propioak eguneratu ahal izango ditu, hala badagokio.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**5. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNEN EGOITZA:**

a. Lege organiko baten bidez finkatuko da.
b. Lege arrunt baten bidez finkatuko da.
c. Eusko Legebiltzarrak emandako lege baten bidez finkatuko da.
d. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez finkatuko da.

**6. NORK OSATZEN DUTE UDALERRI BATEKO BIZTANLERIA?**

a. Udal erroldan inskribatuta dauden eta ez dauden pertsonek.
b. Udal erroldan inskribatuta dauden pertsonek.
c. Helbideratuek, behin-behineko egoiliarrek eta atzerritarrek.
d. Udal erroldan inskribatuta dauden adinez nagusiek.

**7. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIEN LEGEAREN ARABERA, BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN TOKIKO GOBERNU BATZARRARI DAGOKIO:**

a. Ordenantzen eta erregelamenduen proiektuak onartzea, organikoak barne, Udalbatza eta haren batzordeak arautzeko arauak salbuespen direla.
b. Udalerriko politika, gobernua eta administrazioa zuzentzea.
c. Erregelamendu organikoak onartzea eta aldatzea.
d. Udalerriz gaindiko antolakundeetan parte hartzeari buruzko erabakiak hartzea.

**8. OSOKO BILKURA, ALKATEAK ETA ZINEGOTZIEK OSATUTA:**

a. Herritarrek udal-gobernuan duten ordezkaritza politikoaren organo gorena da.
b. Alkateak egingo du osoko bilkurarako deia eta bera izango da buru, Lege honetan eta hauteskunde-legedi orokorrean aurreikusitako kasuetan izan ezik.
c. Erregelamendua egin dezake beretzat, eta organikoa izango da.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**9. TRIBUTU IZAERAKO BALIABIDE PROPIOAK ZEHAZTEKO ESKUMENA HONI DAGOKIO:**

a. Alkateari.
b. Zinegotzi ordezkariari.
c. Udalbatzari.
d. Tokiko Gobernu Batzarrari.

**10. UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, BILBOKO UDALEKO UDALBATZAK ONDORENGOEN EKIMENEZ HARTUKO DITU ERABAKIAK:**

a. Alkatea, Bozeramaileen Batzordea, zinegotziak eta talde politikoak.
b. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak, talde politikoak eta herri ekimena.
c. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak eta gainerako zinegotziak.
d. Alkatea, Gobernu Batzordea, bertako kideak, gainerako zinegotziak eta herri ekimena.

**11. BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOA ARAUTZEN DUEN ARAUDIAREN 2.4. ARTIKULUAREN ARABERA, BILBOKO AUZITEGI EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAREN EBAZPENEK:**

a. Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka gorako errekurtsoa soilik aurkeztu ahalko da.
b. Administrazio bidea amaitzen dute, eta haien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa soilik aurkeztu ahalko da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legean azaldutako moduan.
c. Ez dute administrazio bidea amaitzen, eta haien aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahalko da.
d. Ez dute administrazio bidea amaitzen.

**12. BILBOKO UDALEKO UDALBATZAREN ARAUDI ORGANIKOAREN 119. ARTIKULUAREN ARABERA, ALKATEAREN AURKAKO ZENTSURA MOZIOAREN ETA ALKATEAK AURKEZTUTAKO KONFIANTZA ARAZOAREN BOZKETA PUBLIKOA IZANGO DA, ETA:**

a. Izenezko deialdiaren bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
b. Isilpeko bozketa bidez egingo da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
c. Eskua jasota bozkatuko da, eta hauteskunde legedi orokorrean ezarritakoaren arabera araupetuko da arlo guztietan.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**13. BILBOKO UDALEKO GOBERNUARI ETA ADMINISTRAZIOARI BURUZKO ARAUDI ORGANIKOAREN ARABERA, ZUZENDARITZA ORGANOEK HARTUKO DITUZTEN ERABAKI ADMINISTRATIBOAK:**

a. Organo zehatzaren akordioak izango dira.
b. Organo zehatzaren ebazpenak izango dira.
c. Organo zehatzaren dekretuak izango dira.
d. Organo zehatzaren aginduak izango dira

**14. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, HAUETAKO ZEIN EZ DA INTERESDUN ADMINISTRAZIO PROZEDURAN?**

a. Eskubide edo interes legitimo indibidual nahiz kolektiboen titular modura hura sustatu dutenak.
b. Ebazpenak uki ditzakeen interes legitimo indibidual nahiz kolektiboak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.
c. Prozedura haiek ez hasi arren, hartan emango den aginduak uki ditzakeen eskubideak dituztenak, eta aginte eskudunaren aurrean agertuko direnak, soilik modu pertsonalean.
d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**15. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDUR ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ADMINISTRAZIO-ISILTASUNAREN BIDEZ GERTATUTAKO ADMINISTRAZIO-EGINTZAK BALIARAZI AHALKO DIRA:**

a. Espedientearen administrazio instrukzio-egilearen aurrean soilik.
b. Administrazioaren aurrean, nola edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribaturen aurrean.
c. Soilik pertsona fisikoen aurrean.
d. Soilik pertsona fisiko edo juridiko publikoen aurrean.

**16. HAUETAKO ZEIN EZ DA ADMINISTRAZIO-ERREKURTSO BAT EZ ONARTZEKO ARRAZOIA:**

a. El Errekurtso-jartzaileak errekurtsoari okerreko kalifikazioa jartzea edo kalifikaziorik ez jartzea, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.
b. Errekurtso-jartzailearen legitimaziorik eza.
c. Errekurtsoak funtsik ez izatea, nabarmen.
d. Administrazio-organoak eskumenik ez izatea, eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean.

**17. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?**

a. Herri-aginteek Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan herri-administrazioari atxikitako langileria gero eta euskaldunagotzeko neurriak hartuko dituzte.
b. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko administraziok gainerako lanpostuetara sartzeko egin daitezen hautaprobetan hizkuntza ofizialen ezagupen-maila hartuko da kontutan merezimendu gisa, besteak beste.
c. Herri-aginteek finkatuko dute zein lanpostutarako izango den derrigorrezko bi hizkuntzak jakitea.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**18. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, HELDUEN EUSKALDUNTZEARI ETA EUSKALDUNEN ALFABETATZEARI BURUZKO ARAUBIDEA FINKATUKO DU:**

a. Eusko Jaurlaritzaren dekretuak.
b. Eusko Legebiltzarraren legeak.
c. Eusko Jaurlaritzaren legegintza dekretuak.
d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**19. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, BAIEZTAPEN HAUETAKO ZEIN DA ZUZENA?**

a. Herri-aginteak herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen saiatuko dira.
b. Euskal Herriko herritar guztiek hizkuntza ofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea dute, nahiz ahoz nahiz idatziz.

c. Herri-aginteek hizkuntza eskubideak ziurtatuko dituzte nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz hemendik kanpo.
d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**20. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN XEDEA DA:**

a. Langileen segurtasuna eta osasuna sustatzea, lanaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko behar diren neurriak aplikatuz eta jarduerak gauzatuz.
b. Laneko istripuen estatistikak sustatu eta garatzea.
c. Langileen segurtasuna garatzea, neurri zuzentzaileak eta zehatzaileak ezarriz.
d. Printzipio orokorrak ezartzea, enpresariek arriskudun lanak kendu ditzaten.

**21. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA, ENPRESABURUAK LANGILEAK KONTSULTATU BEHARKO DITU, BEHARREZKO AURRERAPENAREKIN, ONDOKO HAUEK DIRENEAN ERABAKI BEHARREKOAK:**

a. Enpresako ekoizpen-prozesuaren planifikazioa eta antolaketa.
b. Merkataritza-sarearen marketin- eta garapen-jardueren antolaketa eta garapena.
c. Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.
d. Ingurumenaren babes-arloko informazioaren proiektua eta antolaketa.

**22. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, ZER DA LANAREN EDOZEIN EZAUGARRI, LANGILEAREN SEGURTASUN ZEIN OSASUNERAKO ARRISKUAK SORTZEKO ERAGIN NABARIA IZAN DEZAKEENA:**

a. Babesteko arriskuen azterketa.
b. Lan-baldintza.
c. Laneko prebentzioa.
d. Lan-arriskua.

**23. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA, INTERESDUNAK ESKUBIDEA IZANGO DU TRATAMENDU-ARDURADUN BATI HELARAZI DIZKION DATU PERTSONALAK ERABILERA OROKORRA ETA IRAKURKETA MEKANIKOA DUEN FORMATU EGITURATU BATEAN JASOTZEKO, BAI ETA BESTE TRATAMENDU-ARDURADUN BATI BIDALTZEKO ERE, DATUAK JASO DITUEN ARDURADUNAK OZTOPORIK JARRI GABE, BALDIN ETA BALDINTZA HAUEK BETETZEN BADIRA:**

a. Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.
b. Tratamendua soilik adostasunean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.
c. Tratamendua adostasunean, kontratu batean edo lege-betebehar batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.
d. Tratamendua adostasunean edo kontratu batean oinarrituta badago, eta tratamendua bitarteko automatizatuen eta automatizatu gabeen bidez egiten bada.

**24. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOA DELA-ETA EZARRITAKO ZEHAPENAK NOIZ PRESKRIBATZEN DIRA:**

a. 40.000 euroko edo gutxiagoko zehapenak sei hilabetera preskribatzen dira.
b. 40.001 eta 300.000 euro arteko zigorrak urte bateko epean preskribatzen dira.
c. 300.000 eurotik gorako zehapenak bi urtera preskribatzen dira.
d. 300.000 eurotik gorako zehapenak hiru urtera preskribatzen dira.

**25. 2016/679 (EB) ERREGELAMENDUAREN ARABERA:**

a. Interesdunak eskubidea izango du bere adostasuna edozein unetan kentzeko, adostasuna eman eta hurrengo egunetik aurrera.
b. Adostasuna kentzeak ez du eraginik izango kendu aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren legitimitatean, non eta adostasun hori osasunari edo ideologiari lotutako datuei buruzkoa ez bada.
c. Tratamendua interesdunaren adostasunean oinarritzen denean, arduradunak gai izan behar du frogatzeko interesdunak oniritzia eman ziola bere datu pertsonalak tratatzeari.
d. Adostasuna kentzea ematea bezain erraza izango da, fitxategiaren arduradunak eta interesdunak estatu kide desberdinetan daudenean helbideratuta izan ezik.

**26. MARKATU ERANTZUN ZUZENA:**

a. Kontratu bat zatikatu daiteke haren zenbatekoa murrizteko.
b. Kontratu bat zatikatu daiteke publizitate-betebeharrak saihesteko.
c. Kontratu bat ez da zatikatu ahal izango esleipen prozedurari dagozkion betebeharrak saihesteko.
d. Sektore publikoko kontratuak beti zatikatu behar dira zenbateko edo balio ekonomiko jakin batera iristen baldin badira.

**27. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK SINATZEN DITUZTEN KONTRATUAK:**

a. Eskritura publikoz formalizatu behar dira beti.
b. Eskritura publikoz formalizatu behar dira Administrazio publiko kontratatzaileak hala eskatzen baldin badu.
c. Lizitazioari zehaztasunez egokitutako dokumentu administratiboan formalizatu behar dira, hitzarmen marko batean edo erosketa-sistema dinamiko baten barruko kontratu espezifikoetan oinarritutako kontratuen kasuan izan ezik.
d. Hitzezkoak izan daitezke.

**28. MARKATU ERANTZUN OKERRA:**

a. Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten mutuak sektore publikoko kontratuen legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.
b. Nortasun juridikoa duten funtsak sektore publikoko kontratuen Legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.
c. Ehuneko berrogeita bederatzian izaera iraunkorrez sektore publikokoak diren subjektuek emandako edo utzitako ondasunek edo eskubideek osatutako ondarea daukaten fundazioak sektore publikoko kontratu-legearen esparru subjektibotik kanpo geratzen dira.
d. Parrokiak ez dira sektore publikoko kontratuen legearen esparru subjektiboko parte.

**29. NOIZ HITZARTU AHAL IZANGO DA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUA OBRA-KONTRATUETAN?**

a. Balio estimatua 2.000.000 euro edo gutxiago denean.
b. Balio estimatua 150.000 euro edo gutxiago denean.
c. Balio estimatua 6.000.000 euro edo gutxiago denean.
d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**30. HONAKO BAIEZTAPEN HAUETATIK, ZEIN DA EGIA?**

a. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
b. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat bere langileen dimentsio egokiaren, haien banaketa, prestakuntza, promozio profesional eta mugikortasun hobearen bidez.
c. Administrazio Publikoetako giza baliabideen planifikazioak zerbitzuen eskaintzan efikazia eta eskura dauden baliabide ekonomikoen erabileran efizientzia lortzen laguntzea izango du xedetzat, bere langileen ausazko birbanaketaren bidez.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**31. ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA ONARTUKO DA:**

a. Urtero.
b. Urtero gutxienez eta bi urtetik behin gehienez.
c. Bi urtetik behin.
d. Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**32. TOKI ADMINISTRAZIOAN DAUDEN LANPOSTUEN ZERRENDAN DERRIGORREZKOAK DIRA, BESTEAK BESTE, DATU HAUEK:**

a. Postuen izena, atxikita dauden departamentu edo zentro organikoa, hornidura sistema, postuei lotutako ordainsari osagarriak, postuen hizkuntza-eskakizuna, bai eta, hala egokitzen denean, haien nahitaezkotasunaren data ere.
b. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak eta oinarrizkoak, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.
c. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, dagozkien ordainsari osagarriak, hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta lokalizazioa.
d. Postuen izena, mota eta hornidura sistema, eta hori betetzeko eskatzen diren baldintzak.

**33. TOKI ARAUBIDEAREN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN APIRILAREN 2KO 7/1985 LEGEAREN ARABERA, IZAERA OROKORREZ, TOKI ADMINISTRAZIOAN ETA HAREN ORGANISMO AUTONOMOETAN LANPOSTUAK BETE BEHAR DITUZTE:**

a. Bitarteko funtzionarioek.
b. Funtzionarioek.
c. Lan-kontratuko langileek.
d. Lan-kontratuko langileek eta behin-behinekoek.

**34. TOKI ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN AUKERAKETA EGIN BEHAR DA AINTZAT HARTUTA:**

a. Enplegu publikorako eskaintzaren arabera, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, eta bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
b. Lan-legerian ezarritakoa.
c. Enplegu publikorako eskaintzaren arabera, deialdi publiko bidez eta lan-legeriak ezarritako sistema erabiliz, eta bermatuz, kasu guztietan, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak, bai eta publizitatearena ere.
d. Enplegu publikorako eskaintzaren arabera, deialdi publiko bidez eta lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa libre sistema erabiliz, berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipio konstituzionalak bermatu beharrik gabe.

**35. TOKI ADMINISTRAZIOEK BITARTEKO FUNTZIONARIOAK IZENDA DITZAKETE KARRERAKO FUNTZIONARIOEI DAGOZKIEN EGINKIZUNAK BETETZEKO:**

a. Plaza hutsak daudenean, nahiz eta haiek karrerako funtzionarioekin bete ahal izan.
b. Haien titularrak modu iraunkorrean ordezkatzeko.
c. Lan gehiegi edo lan metaketa handia dagoenean gehienez ere bederatzi hilabeteko epean, eta hamazortzi hilabeteko aldian.
d. Aldi baterako programak betearazteko; programa horiek ezin izango dute eduki bi urtetik gorako iraupena.

**36. AURREKONTU EDO EKONOMIA EKITALDIA(K)…**

a. …hilerokoa izango da.
b. …6 hilabete iraungo du gutxienez eta urte eta erdi gehienez.
c. …urte naturalarekin bat etorriko da.
d. …ezin izango du iraun 14 hilabete baino gehiago.

**37. AUZITEGIEK, EPAILEEK ETA AUTORITATE ADMINISTRATIBOEK BETEARAZPEN AGINDUAK ETA ENBARGO PROBIDENTZIAK EMAN DITZAKETE TOKIKO OGASUNAREN ESKUBIDEEN, FUNTSEN, BALIOEN ETA ONDASUNEN AURKA, ETA FIDANTZAK, GORDAILUAK ETA KAUZIOAK EXIGITU TOKI ERAKUNDEEI, AURREKO ERAGIKETA HORIEK HONAKO ONDASUN HAUEN AURKA BIDERATUTA DAUDENEAN SOILIK:**

a. Edozein motatako ondasunen aurka.
b. Jabari publikoko edozein ondasunen aurka.
c. Ondare-ondasun guztien aurka.
d. Erabilera edo zerbitzu publiko baten eraginik gabeko ondare-ondasunen aurka.

**38. HONAKO HAUETATIK ZEIN EZ DA GASTUA GAUZATZEKO PRINTZIPIO OROKORRA?**

a. Segidako administrazio kontrolaren printzipioa.
b. Prozedura osatzen duten eragiketa guztien justifikazio dokumentalaren printzipioa.
c. Kredituaren titulartasun errealaren printzipioa.
d. Arduradunek eragiketak bete dituztelako egiaztapen idatziaren printzipioa.

**39. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN UDALBATZAREN ARDURA DA:**

a. Udal ordenantza eta araudien onespena eta aldaketa.
b. Udal ordenantza eta araudien onespena, baina ez haien aldaketa.
c. Udal ordenantzen onarpena eta onespena, baina ez udal araudiena.
d. Udal ordenantza eta araudien onespena eta aldaketa, izaera organikoa duten araudiena izan ezik.

**40. UDAL ARAUDI BATEN AURKAKO BIDEZKO ERREKURTSOA ZERA DA:**

a. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
b. Berraztertzeko errekurtsoa.
c. Gora jotzeko errekurtsoa.
d. Berrikusteko aparteko errekurtsoa.

**41. TOKI ERAKUNDEEN BEREZKO ZERGAK ARAUTZEN DITUZTEN ORDENANTZA FISKALEK EDUKI BEHAR DITUZTEN KONTZEPTUEN ARTEAN HONAKO HAUEK DAUDE:**

a. Zergapeko egitatearen zehaztea, salbuespenak, murrizketak eta hobariak, zergaoinarria eta oinarri likidagarria, karga-tasa edo zerga kuota, zergaldia eta sortzapena.
b. Aitorpen eta sarrera erregimenak.
c. Bere onarpenaren eta aplikazioaren hasieraren datak.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**42. ZEIN DA GEHIENEKO EPEA ARARTEKOAN KEXA BAT JARTZEKO, KALTETUAK KEXA HORI ERAGITEKO ARRAZOI IZAN DAITEZKEEN JOKABIDEEN EDO GERTAKARIEN BERRI IZAN ZUENETIK?**

a. 4 urte.
b. Urtebete.
c. 6 hilabete.
d. Ez dago eperik.

**43. FUNTZIONARIO PUBLIKOEK HERRITARRAREN DEFENDATZAILEARI EMANDAKO LAGUNTZA/K:**

a. Gainean duten aginte administratiboak erabakitzen duenaren mende dago, kasu bakoitzean.
b. Judizialki eskatzen denean baino ez da emango.
c. Lehentasunezkoa eta urgentea izan behar du.
d. Aukerakoa da haientzat.

**44. EZAGUT DEZAKE ARARTEKOAK SEKRETUTZAT JOTAKO DOKUMENTU BAT?**

a. Ez, inoiz ez.
b. Bai, dokumentu horretarako sarbidea ukatzen duen Gobernuaren berariazko hitzarmena dagoenean salbu.
c. Bai, Legebiltzarraren aldez aurretiko baimenarekin.
d. Bai, kasu guztietan, Prozedura Kriminalaren Legearen 282 bis artikuluan jasotako jarduneko autoritateei buruzko dokumentuak izan ezik.

**45. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUKO 10.2 ARTIKULUAREN ARABERA, AUTOGOBERNUAREN ERAKUNDEEN ANTOLAKETA, ARAUBIDEA ETA FUNTZIONAMENDUAREN ESKUMENA:**

a. Estatuarekin partekatua da.
b. Esklusibo ez partekatua da.
c. Lurralde historikoekin partekatua da.
d. Lege garapenekoa eta betearazpenekoa da.

**46. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOARI DAGOKIO ESTATUAREN LEGERIA BETEARAZTEA HONAKO GAI HAUETAN:**

a. Euskadin egindako nazioarteko azokak.
b. Espetxe-legeria.
c. Jabegoaren Erregistratzaileen, Ganbio eta Burtsa Agenteen eta Merkatal Korredoreen izendapena.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**47. KONSTITUZIOAREN 148. ARTIKULUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOEK HAINBAT GAITAKO ESKUMENAK HAR DITZAKETE. ADIERAZI EA OBRA PUBLIKOETAKO ESKUMENAK HAR DITZAKETEN ETA, ERANTZUNA BAIEZKOA BADA, ZER BALDINTZATAN:**

a. Ez, interes orokorreko obra publikoak direnean.
b. Bai, eskumen hori hartzeko baliatu duen Lege organikoak ezarritako baldintzetan.
c. Bai, autonomia erkidegoaren intereseko obra publikoak direnean eta haren lurraldearen barruan eginak.
d. Bai, kasu guztietan, estatuaren titulartasuna duten kasuetan izan ezik.

**48. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 14. ARTIKULUAREN ARABERA, MARKATU ERANTZUN ZUZENA EUSKADIKO JURISDIKZIO ORGANOEN ESKUMENAREN HEDADURARI DAGOKIONEZ:**

a. Ordena zibilean, instantzia eta gradu guztietara. Kasazio eta berrikuspen helegiteak barne Euskadiko berezko Zuzenbide Zibil Foraleko gaietan.
b. Zigor ordenan eta ordena sozialean, instantzia eta gradu guztietan, kasazio eta berrikuspen helegiteak izan ezik.
c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen ordenan, instantzia eta gradu guztietan Euskadiko Administrazioak diktatutako ekintzak direnean Autonomia Elkarteari esklusiboki dagokion legeriaren gaietan.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**49. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA, AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKARIZ, ESKUDUNTZA DUEN ORGANOAK EGIN BEHARKO DITU MAGISTRATU, EPAILE ETA IDAZKARIEN PLAZA HUTSAK BETETZEKO LEHIAKETA ETA OPOSIZIOETARAKO DEIALDIAK EUSKADIN, HONAKO HONEK XEDATUTAKOARI JARRAITUZ:**

a. Botere Judizialaren Lege Organikoak.
b. Euskal Funtzio Publikoaren Legeak.
c. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak.
d. Erantzun guztiak zuzenak dira.

**50. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ADIERAZI: NOLA BETETZEN DITU BERE FUNTZIOAK MINISTERIO FISKALAK?**

a. Ministerio Fiskalaren Estatutu Organikoak ezartzen duenaren arabera.
b. Organo propioen bidez.
c. Lege Organiko bidez ezartzen denaren arabera.
d. Justizia Ministerioak ezarritakoaren arabera.

## ERRESERBAKO GALDERAK

**51. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ORDENA POLITIKOAREN ETA GIZARTE BAKEAREN OINARRI DA EDO DIRA:**

a. Segurtasun juridikoa.
b. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa.
c. Gizabanakoari dagozkion eskubide bortxaezinak.
d. Justizia.

**52. EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA ESTATUTUAREN 9. ARTIKULUAN EZARRITAKOAREN ARABERA, NORK ZAINDU ETA BERMATUKO DU HERRITARREN OINARRIZKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN ERABILERA EGOKIA?**

a. Lehendakariak.
b. Euskal botere publikoek.
c. Eusko Legebiltzarrak.
d. Arartekoak.

**53. LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO LEGEAREN ARABERA, LANGILEEK ESKUBIDEA DUTE:**

a. Laneko segurtasun- eta osasun-arloan benetako babesa izateko.
b. Lanean eta hortik kanpo erabateko prebentzioa izateko.
c. Laneko prebentziorako.
d. Beren lanaz informatzeko.

**54. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN 39/2015 LEGEAREN ARABERA, ARAU OROKOR GISA, ADIERAZI TOKIKO ERAKUNDEEK ZEIN HIZKUNTZATAN IZAPIDETUKO DITUZTEN ADMINISTRAZIO PROZEDURAK:**

a. Gaztelaniaz.
b. Gaztelaniaz eta gainerako hizkuntza koofizialetan.
c. Kasu honetan, dagokion legedi autonomikoan aurreikusitakora doituko da hizkuntzaren erabilera.
d. Kasu honetan, hizkuntzaren erabilera tokiko erakundeak aukeratuko du.

**55. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 10/1982 OINARRIZKO LEGEAREN ARABERA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIZKUNTZA OFIZIALAK DIRA:**

a. Gaztelania da hizkuntza ofizial bakarra.
b. Euskara da hizkuntza ofizial bakarra.
c. Euskara eta gaztelania.
d. Erantzun guztiak okerrak dira.

**56. DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEARI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 3/2018 LEGE ORGANIKOAK BAIMENA EMATEN DIE IRUDIAK TRATATZEKO, KAMERA EDO BIDEOKAMARA SISTEMEN BIDEZ, PERTSONEN ETA ONDASUNEN NAHIZ INSTALAZIOEN SEGURTASUNA ZAINTZEKO, HAUEI:**

a. Soilik dagokion erregistroan behar bezala identifikatutako pertsona fisikoei.
b. Soilik pertsona juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.
c. Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak, nahiz eta bide publikoko irudiak hartzea soilik erakunde publikoei mugatuta dagoen.
d. Pertsona fisiko edo juridikoei, hala publikoak nola pribatuak.

**57. EPOETB-EN ARABERA, ZER KUDEAKETA TRESNAREN BIDEZ AURREIKUSI AHAL IZANGO DITUZTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK ESPARRU BATZUETAKO LANGILEETARA MUGATUTAKO POSTUEN HORNIDURARAKO LEHIAKETAK IZAN DAITEZKEEN MUGIKORTASUN NEURRIAK?**

a. Enplegu Publikorako Eskaintzaren bidez.
b. Giza baliabideen antolamendu Planen bidez.
c. Lanpostuen Zerrenden bidez.
d. Aukera hau ez da aintzat hartzen indarrean den legedian.

**58. TOKI ADMINISTRAZIOAK BERE ANTOLAKETA EGITURATZEKO EGITEN DITUEN LANPOSTUEN ZERRENDETAN SARTU BEHAR DIRA:**

a. Ordainsari osagarriak.
b. Hornidura sistemak.
c. Sailkapen profesionaleko multzoak.
d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**59. BIZTANLERIA HANDIKO UDALERRIETAN ORDENANTZA ETA ARAUTEGI PROIEKTUEN ONESPENA, ORGANIKOAK BARNE, UDALBATZAREN ETA HAREN BATZORDEEN ARAU ERREGULATZAILEAK SALBU, HONI DAGOZKIO:**

a. Alkateari.
b. Tokiko Gobernu Batzarrari.
c. Udalbatzari.
d. Aurrekoetako bakar bati ere ez.

**60. KONSTITUZIOAREN ARABERA, ADIERAZI: NORI DAGOKIO ERA GUZTIETAKO PROZESUETAN EPAITUTAKOA EPAITZEA ETA BETEARAZTEA?**

a. Botere Judiziala osatzen duten epaile eta magistratuei.
b. Legeek ezarritako epaitegi eta auzitegiei esklusiboki, haiek ezarritako eskuduntza eta prozedura arauen arabera.
c. Auzitegi Gorenari.
d. Justiziako Auzitegi Nagusiei.

B Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

# ERANTZUN ORRIA
## *HOJA DE RESPUESTAS*

**1. ABIZENA / *1er APELLIDO*:** LEP 2022 EGONKORTZEA (OPOSIZIO LEHIAKETA)

**2. ABIZENA / *2º APELLIDO*:** EKONOMIA-FINANTZA ARDURADUN

**IZENA / *NOMBRE*:**

**NAN / *DNI*:**

**DATA / *FECHA*:**

**KIDEGO EDO LANPOSTUA / *CUERPO O PLAZA*:**

**SINADURA / *FIRMA***

Sinatu laukitik atera gabe / *Firmar sin salir del cuadro*

**NAN / *DNI***

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 | 4 |
| 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 | 5 |
| 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 | 6 |
| 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 |
| 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 | 8 |
| 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 | 9 |

**MARKATZE ARGIBIDEAK**
*INSTRUCCIONES DE MARCADO*

honela markatu
*marque así*

honela ez markatu
*así no marque*

**Azterketa eredua / *Modelo de examen*** A ◯ B ◯

Marked answers (A / B / C / D; rows alternate EZEZT. / ANULAR):

| Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna | Galdera | Erantzuna |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | D | 21 | C | 41 | D | 61 | | 81 | |
| 2 | A | 22 | B | 42 | B | 62 | | 82 | |
| 3 | D | 23 | A | 43 | C | 63 | | 83 | |
| 4 | D | 24 | D | 44 | B | 64 | | 84 | |
| 5 | C | 25 | C | 45 | B | 65 | | 85 | |
| 6 | B | 26 | C | 46 | D | 66 | | 86 | |
| 7 | A | 27 | C | 47 | C | 67 | | 87 | |
| 8 | D | 28 | A | 48 | D | 68 | | 88 | |
| 9 | C | 29 | A | 49 | A | 69 | | 89 | |
| 10 | B | 30 | A | 50 | B | 70 | | 90 | |
| 11 | B | 31 | A | 51 | C | 71 | | 91 | |
| 12 | A | 32 | A | 52 | B | 72 | | 92 | |
| 13 | B | 33 | B | 53 | A | 73 | | 93 | |
| 14 | C | 34 | A | 54 | C | 74 | | 94 | |
| 15 | B | 35 | C | 55 | C | 75 | | 95 | |
| 16 | A | 36 | C | 56 | D | 76 | | 96 | |
| 17 | D | 37 | D | 57 | B | 77 | | 97 | |
| 18 | B | 38 | C | 58 | D | 78 | | 98 | |
| 19 | B | 39 | A | 59 | B | 79 | | 99 | |
| 20 | A | 40 | A | 60 | B | 80 | | 100 | |

Certificado: 922349 ©Copyright 2019 Dara Informática SLU. Todos los derechos reservados. http://www.dara.es/omr